

Laugarren Mahai-Ingurua / Cuarta Mesa Redonda

(Fourth Round table)

Moderatzailea/Moderador:

José Patricio Aldama

Eusko Ikaskuntza. M^a Díaz de Haro, 11-1. 48013 Bilbao

Partaideak/Participantes:

Karlos Sánchez Ekiza; José Mariano Barrenetxea; Juan Mari Beltran;

Oier Araolaza; Josu Larrinaga; Mikel Legorburu; Ingrid Kuschick;

J. Jabier Abasolo, “Tiliño”; Sabin Egiguren; Aintzane

BIBLID [1137-859X (2007), 9; 401-407]

Juan Mari Beltranen hitzaldiaren ondoren:

Karlos Sánchez Ekiza: Nik uste dut oso inportantea dela kontzeptualizazioa. Esate baterako, zuk [Juan Mari Beltranek] aipatu duzunean txalaparta musika den ala ez... Nik gaur goizean esan dut duela gutxi arte txalaparta ez dela musikatzen hartu. Kontzeptuak ere aldatzen dira. “Autentizidade” hitza ez da bakarrik produktuei aplikatzen, kontzeptuei ere bai. Zortzikoa oso kasu adierazgarria da; gaur, “Zortziko” hitza hiruzpalau esanahi desberdinekin erabili dugu, kronologikoki hala esan delako. Nahiz eta egia objektiboa ez izan (baldin badago), herriak gauza bat izen batekin erabiltzen badu, hori errespetatu egin behar dugu. Beti “herri” hitza ezpainetan daukagu, baina ez dakit errespetatzen dugun.

Afrikan bizitza musika egiten pasatzen dute, behintzat hala iruditzen zaigu guri, baina badakizue Afrikako hizkuntza gehienetan ez dagoela hitz bat “musika” hitza aipatzeko. Beste zerbait egiteko erabiltzen dute: lan egiteko, haurra lotarazteko... Problema kontzeptualizazioa da. Gaur goizean esan dudan bezala, kontzeptu gehienak bigunak dira eta guk bete behar ditugu.

Beste gauza bat: arabeen asuntia... ez bakarrik anekdotikoa izateagatik; albokari leporatu zitzaion musika arabearekiko erlazioa. Oso inportantea da gertatzen dena, nola hartzen diren kontzeptuak.

Beste gauza bat uste dut ez dugula aipatu: gauza zaharrak kopiatzea eta gauza berriak asmatzea. Gauza zaharra kopiatu nahi badugu, horretarako fonografoak daude, baina gu ez gara fonografoak. Ez bakarrik Mauriziok, zuk edo nik, pieza bat mila aldiz jotzen badugu ere, mila bertsio desberdin egingo ditugu. Musika une bakoitzean da. Kopiatzeko asmoa izatea ez da kopiatzea. Zuk esan duzu [Juan Mari Beltranek]: orain perlak hartzen ari gara, eta seguru asko perla horiek ez zituen Aita Donostiak jasoko. Eta hori ere interesgarria da. Zer bilatzen dugu eta zer aurkitzen dugu? Zer ari gara bilatzen?

Garai guztiak biltzekoak badira, ikertzekoak ere bai, eta horretan premiazko asuntioak ditugu momentu honetan. Aita Donostiak eta Bela Bartokek bazuten abantaila bat: Aita Donostiarentzat, ziur aski gauza berriak eta gauza zaharrak egitea gauza bera zen. Esate baterako, armonia inpresionista, bertsolariek gaiz aldatzeko zuten erraztasunarekin konparatu zuen. Bela Bartokek ere antzeko



zerbait. “Ahaide zahar hüntan bi bertset berririk”. Tradizioa mantendu bai, baina horretarako zerbait berria egin behar dugu.

Ibon Koteronek esan zuenaz, nik uste ondo egin zuela hori pentsatzen bazuen. Egia da, zerbait berria baldin bada esan behar dela, horretan ados nago zurekin [José Mariano Barrenetxearekin], baina berak esaten du. Gauza bat da tradizioa mantentzea, baina gero artistaren ikuspuntua dago: ni artista banaiz, gauza berriak egiteko eskubidea dut. Eta horrek ez du esan nahi tradizioari errespeturik ez diodanik. Ez zait iruditzen hor eztabaidatzeko gauza handirik dagoenik.

Nik ez dut uste gauza bat tradiziokoa izateagatik sakrosantua dela. Albokarekin zer egin daiteke, Txilibrinek eta Leonek egiten zutena? Gauza berriak egiteko eskubidea izan behar dugu. Beharbada asmoa espresioa bilatzea da, nor-tasuna. Denborak esango du herrikoi bihurtzen diren ala ez.

José Mariano Barrenetxea: Txalaparta aipatu duzu, eta nik gauza bat ikasi nion On Joxemiel Barandiarani: “txalapartaren esanahia, nik ez diot hori inongo txalapartariri entzun, “sonidos ordenados” dela. Eta “zalaparta”, zuek bizkaieraz “zarata” deitzen diozuen da”.

Juan Mari Beltran: Txalapartari buruz badu zerbait idatzia Barandiaranek, baina nik ez diot holakorik inon irakurri.

J.M. Barrenetxea: Niri esan zidan. Albokari buruz, *alboque* dela eta... hala balitz ere, alboka ez da arabiarra.

J.M. Beltran: Kontzeptuak direla-eta... nik uste, gure artean ulertzeko, esan dezakegula txalaparta musika dela. Nik badakit, Herri Musikaren Txokoan bisita bat egiten ari garela, tailandiarren musika jartzen badut, hura gehientzat ez dela musika, ez baitakite nola ordenatu musika hura. Beste kontu bat da Aita Donostia eta Bartok bi muturretan aritu zirela, baina hori gaur niri ere gertatzen zait: musika tradizional-festibaletatik deitzen didate, eta baita ere abangoardia-ko musika-festibaletatik. Orain dela gutxi, zeltar musika-festibaletan ere egon naiz.

K.S.E.: Musika zeltiarretan edozer gauza bila dezakezu, Benito Lertxundi...

J.M. Beltran: “Nuevas tendencias en la música tradicional” beti izan dira. Maurizio Elizalde ere hala zen.

Oier Araolaza: Badaukat sentsazioa etengabe ari garela gauza berari bueltaka, norbait konbentzitu nahian bezela. Uste dut oro har barneratuta daukagula tradizioaren ikuspuntu bat zenbaitzuk ez dutena konpartitzen eta horrek eramaten gaituela eztabaida honetara. Nik oso garbi daukat niretzat tradizioa zerbait dinamikoa dela, eta prozesu dinamiko bezala nik ez dut ulertzen tradizioa argazki estatiko bat bezala. Hor daukagu eta hor ari gara bueltaka.



Nik aurten inauteri aste oso berezia tokau jata, irakasle zorrotz bat daukadalako eta astebete jarri gaituelako gregorianoa ikasten. Eta ikasi, asko ikasi dugu eta ikasi dugun gauzetako bat, atentzioa deitu zidan eta uste dut hemen aplikatzeko modukoa dela. Gregorioanoari buruz ere bazegoen, egon da horrelako ikuspuntu erabat estatikoa, hau da: *“Gregorioanoa berdina izan da azken 1500 urteetan, eta beti gure moduan, beti berdin kantatu dute”*, eta halako batean iritsi zen ikertzaile zorrotz bat, hain zuzen ere Solesmes-eko monastegian maisua zena, hau da gregorianoaren bihotzean zegoena maisu bezala, ikertu zituen paper zaharrak, konparatu zituen beste batzuekin, eta ikusi zuen gregorianoa inoiz ez zela izan argazki bat. Hain zuzen ere argazki hori ateratzen saiatu zirenerako mila urteko historia bazeukala, ibilbidea, norabidea, aldaketak, eta atera zituen modalidad arcaica eta gregorianoa kantatzeko beste mila modu izan direnak, eta gaur egundik saiatu gaitzkeenak interpretatzen. Bueno, saiatu zen ateratzen, baina momentu hartako Erromako, Vaticanoko kontzilioa ez zion utzi aurrera egiten. Eta gizon hori hil zen, eta bere hurrengo maisuak, Solesmes-eko maisuak, lortu du 30 urteren buruan paper haiek ateratzen hastea eta gregorianoaren inguruan halako ikuspuntu hori aldatzen hastea. Noiz lortu du hori? Erromako garai hartako obispo guztiak desagertu direnean. Ez nuke nahi Euskal Vaticanoa noiz jubilatuko kontzeptu aldaketa hauek praktikan jarri ahal izateko. Uste dut badaukagula ordua... Uste dut urrats hori emanda daukagula, eta aurrera egin behar dugula, jardunaldi hauetan *horizonte* eta aurrera begirako kontuak aztertu nahi bagenituen, biharkoa ere tradizioa izango da eta hasi gaitezen bihar-koaz hitzegiten.

J.M. Barrenetxea: Baina sustraiak galtzen baldin badirez agur!

O.A.: Bai noski, sustraiak saiatuko gara biltzen, eta saiatuko gara sustraietatik abiatzen.

Josu Larrinaga: Yo voy a lo de siempre: cara al futuro, ¿qué vamos a hacer? Lo importante no es lo que pasó ayer.

Vivimos en pleno mestizaje. Los sistemas de socialización son diversos. Yo tengo dos hijos, y ellos mismos viven contradicciones; dos sistemas de socialización: por un lado la televisión, el cine... y nosotros que les damos otros valores, que parece que es la contracultura. No sé si nosotros somos la contracultura o es al revés. Y ellos no lo ven claro, tienen una dicotomía entre los dos tipos de socialización.

Aquí pasa lo mismo. Hay que hacer cambios, hay que replantearse la filosofía que tenemos cada uno periódicamente, porque somos producto del momento en que vivimos. Y lógicamente, hay que ir pensando en la adecuación: investigar, desarrollar y acondicionar. Hace falta la coordinación de esos tres elementos. Ésa sería la idea.

La reflexión nos la llevamos todos a casa, pero lo importante es saber lo que queremos hacer de aquí en adelante, crear un foro, no me importa quién lo cree. Yo lo que quiero saber es: ¿hay ganas de hacer algo cara al futuro?

Mikel Legorburu: Bi kontu esan nahi ditut. Aurrenekoa, ikerlari batek esan zuen 70. hamarkadan, biltzeko garaia bukatu zela, hil zirela azken testiguak... eta hemen gaude oraindik. Bigarrena, gaur hemen ikusi dudana eztabaida aspaldi-aspaldikoa dela iruditzen zait (Jesukristoren aurreko mendeetakoa). Oso garbi esaten zuten bi filosofok: batek zioen beti ibai berean bainatzen zela, eta besteak, ura beti aldatzen ari zela. Nik uste horretan gabiltzala, eta hori aplikatu beharko genukeela folklorean. Hor daukagu tradizioa, baina sekula ez da berdina. Tarteko bideak bilatzen saiatu behar dugu. Sekula ez da izango ez mutur bat, ez bestea. Eta erdibide horretan ez dut uste inor gaudenik.

J.M. Barrenetxea: Albokarien kontuak, niretzako, ez dira muturrak. Zuek egin nahi baduzue [zerbait berria], egin zeuek nahi duzuen, niri hor konpon. Baina kontu izan "folklore" hitzak zer esan nahi duen.

Ingrid Kuschick: Se ha lanzado una pregunta: ¿qué hacemos? Yo veo que hay varias líneas: una, trabajar en la línea de patrimonializar todo lo que tenemos aquí, música y danza; otra, formar un compendio de referencia para futuras aplicaciones. Luego está el tema de la socialización. Son tres líneas interesantes.

K.S.E.: Las tres son compatibles. A mí me parece mentira que todavía los investigadores no tengan manuales. ¿Quién se pone manos a la obra?

I.K.: No pensaba tanto en manuales de referencia sino, por ejemplo, crear audiovisuales. Grabar una Soka-Dantza, por ejemplo. Algo que facilite luego la socialización.

K.S.E.: Yo también pienso que los manuales tienen que ir acompañados por todos los medios audiovisuales que tenemos al alcance.



J.M. Beltran: Lehen ez dut aipatu, baina emakumearen kontua ere aipatu nahi nuke. Garbi dago emakumeak zer funtzio izan duen guk ezagutu dugun gizartean. Hori dela-eta, eztabaida gogorrek ematen dira: Maskaradak direla, Irungo Alardea dela, Mutil Dantzak direla...

Baztango txistularia, gaztea da baina, isildu egiten da emakumezkoa dantzan ikusten badu; ez da isiltzen, ordea, emakumea txistua jotzen entzuten badu. Sekula ez dira izan, guk dakigunez, txalapartari emakumezkoak, albokari emakumezkoak... emakumezkoak beste gauza batzuetarako ziren. Eta baldin baziren, halakoak ziren. XX. mende hasieran, Oiartzunen bazegoen soinu-jotzaile emakumezko bat. Bat! Halako fama zeukan!

Inor ez gara eskandalizatzen, dantza-taldeetan, emakumezko txistulariak ikustean. Eta hori ez da "tradizionala". Eta hori justifikatzen da, aintzinako erre-presentazioa dela esanaz. Erreportaje batean ikusi nuen telebistan, gerra aurreko eszena batean, Musika Banda bateko kideak denak emakumezkoak zirela. Pelikula batean hori egitea, erromatarren pelikuletan plastikozko erlojuak jartzea bezala iruditzen zait. Baina gainontzean, inportanteena, tradizioarako, ez da emakumezkoa edo gizonezkoa izatea, dantza bera da inportanteena.

"Tiliño": laz, lehenengoz, neskek sartu ziren Garain, Santa Ana egunean, Dantzari Dantza egiteko, mutilik ez zegoelako. Lau neskek eta lau mutilek egin zuten dantzan. Udaletxean batzartuta erabaki zuten hori.

K.S.E.: Orain pare bat urte, hiri inportante batean gertatutakoa da hau: Txistulari Bandan neskek sartzea ez zela komeni esan zuen zinegotzi batek, estetika hausten zuelako.

J.M. Barrenetxea: Igandeetan, lehen ere neskek egiten zuten dantzan. Gizonak tabernara edo sagardotegira joaten ziren.

"Tiliño": Emakumeek makina bat erromeria egin dituzte, pandero hutsarekin. Momentua da dena: abadeek ere, lehen "infernuko hauspoa" esaten zuten, eta orain "zerurik bada, horrentzako!"

O.A.: Guk hartu behar diogu aurea kontu horri, kanpotik etorri aurretik. Iruenen eta Hondarribian ikusi da hori. Iurretan San Migel egunean neskak jartzea eta Tolosako Bordon Dantzan neskak sartzea esan nahi dut, bestela erreklama-zio moduan etorriko zaigu, eta orduan bai soluzio denak txarrak izango direla.

Honekin bukatzeko: inoiz konturatuko gara, kontu horretarako poxpolinen figuraren asmaketa zein kaltegarria izan den: poxpoliñak sortzeak, eta haientzat erreperitorio oso bat sortzeak, marra bat jarri du. Neskek honaino, marra pasa gabe. Eta hori oso kaltegarria izan da.

Ana Gallo: Yo he bailado *Mutil Dantzas*, en Arizkun, pero yo no me considero quién para imponer de fuera cómo hay que hacer las cosas. Yo no puedo ir a la merindad de Durango a decir que bailen las mujeres.

O.A.: Por eso, tenemos que tomar las decisiones de dentro para que no vengán de fuera, porque sino sacaremos la pancarta y diremos “aquí se hacen las cosas como a mí me da la gana”.

Sabin Egiguren: Yo sólo te digo una cosa, a ver quién es el guapo que viene a la merindad de Durango a decir que en la *Dantzari Dantza* bailen las mujeres. Estoy seguro que hay muchas mujeres que saben bailar la *Dantzari Dantza*, pero una cosa es bailar en un ambiente familiar, y otra cosa es la danza ritual en San Miguel... eso es otro cantar.

En Baztan el problema es distinto: los hombres se empeñan en que las mujeres no bailen, pero ellos no bailan. Eso es una vergüenza. Nosotros hemos hecho bastantes cursos con los Larralde en Arizkun, la mayoría mujeres, por supuesto. Ésta [Ana Gallo] aprendió a bailar muy bien, y le dije que bailara en Baztan. Si los hombres no bailan, me parece bien que bailen las mujeres. Esa tradición no está para perderse. Es una danza que a las mujeres les puede ir bastante bien, en Baztan.

Aparte que no es lo mismo para una mujer bailar una *Mutil Dantza* o bailar una *Dantzari Dantza*, con espadas, con palos... no es lo mismo.

Aintzane: Neska naizenez gero, tonu anekdotikoan esan diren zenbait gauzek mindu egin naute. Ni ez nago dantzaren munduan, irakaskuntzan nago, eta hezkuntzan oso inportantea da jeneroaren arazoa, “arazoa” dela esaterik badago. Inoiz eztabaidatu beharko dugu kontu hori, baina ez tonu anekdotikoan.